

Toponimia DBHko 4. mailan lantzeko proposamen didaktikoa

Idoia Saez Arza
Master Amaierako Lana
Masterra Bigarren Hezkuntzako Irakasletzan
Zuzendaria: Juankar Lopez-Mugartza
2022/2023 ikasturtea

Laburpena

Lan honetan Iruñerriko euskal toponimiaren azaleko azterketa bat egingen dut, gerora, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 4. mailako eskoletan, Euskara eta Literatura ikasgaien lanketa bat proposatzeko. Toponimoen azteketarako, zenbait ikertzaileren hitzak ekarri ditut, batetik, toponimiaren garrantzi linguistikoa azpimarratzeko; bestetik, Iruñerriko toponimoen eta atzizki toponimiko nagusien azalpen eta bilketa bat egiteko.

Lan honen helburua toponimiaren alderdi pedagogiko eta didaktikoa mahaigaineratzea da. Euskarak hitz berrien eraketarako duen hitz eratorrien baliabidean sakonduko dut, curriculumarekin bat datorren edukia baita. Bestalde, Iruñerria izan dut ikerketa eremu, bertan kokatutako D ereduko Institutu batean egiteko diseinatu baitut Unitate Didaktikoa.

Resumen

En este trabajo realizaré un análisis superficial de los topónimos vascos de Iruñerria, y más adelante propondré una actividad en la asignatura de *Euskara y Literatura* en las escuelas de nivel de Educación Secundaria Obligatoria (ESO). Para el estudio de los topónimos, he recopilado estudios de diversos expertos, por un lado, para destacar la importancia lingüística del topónimo; por otro lado, para realizar una explicación y recopilación de los principales topónimos y sufijos toponímicos de Iruñerria.

El objetivo de este trabajo es incorporar el aspecto pedagógico y didáctico de la toponimia. Profundizaré en los recursos lingüísticos para la creación de nuevas palabras en euskera, que se relaciona con el contenido del currículo. Además, he diseñado una Unidad Didáctica para ser implementada en un Instituto de modelo D ubicado en Iruñerria.

Summary

In this work, I will carry out a superficial analysis of the Basque toponyms of Iruñerria and later propose an activity in the subject of *Euskara and Literature* in the compulsory secondary education (ESO) level schools. For the study of toponyms, I have compiled studies from various experts, on the one hand, to highlight the linguistic importance of the toponym; on the other hand, to provide an explanation and collection of the main toponyms and toponymic suffixes of Iruñerria.

The objective of this work is to incorporate the pedagogical and didactic aspect of toponymy. I will delve into the linguistic resources for the creation of new words in Basque, which

is related to the curriculum content. Additionally, I have designed a didactic unit to be implemented in a Model D Institute located in Iruñerria.

Aurkibidea

0. Sarrera.....	5
1. Marko teorikoa.....	6
1.1 Toponimiaren garrantzia.....	6
1.2 Toponimiaren alderdi didaktikoa.....	7
1.3. Iruñerriaren inguruko ohar batzuk.....	8
1.3.1. Iruñerriko geografia.....	8
1.3.2. Iruñerriko historia.....	9
1.4. Toponimia.....	10
1.4.1. Toponimoen bilakaera.....	10
1.4.2. Iruñerriko toponimia.....	11
1.4.3. Elementu orokorrak.....	13
2. Marko praktikoa.....	16
2.1. Lege markoa.....	16
2.1.1. Etaparen helburuak.....	16
2.1.2. Funtsezko konpetentziak.....	18
2.1.3. Deskriptore operatiboak.....	21
2.1.4. Konpetentzia espezifikoak.....	23
2.1.4.1. Bigarren konpetentzia espezifikoa.....	23
2.1.4.2. Hirugarren konpetentzia espezifikoa.....	24
2.1.4.3. Laugarren konpetentzia espezifikoa.....	24
2.1.4.4. Bosgarren konpetentzia espezifikoa.....	25
2.1.4.5. Seigarren konpetentzia espezifikoa.....	26
2.1.4.6. Bederatzigarren konpetentzia espezifikoa.....	26
2.1.5. Oinarrizko jakintzak.....	27
2.2. Aniztasunaren trataera.....	31
2.3. Saioak.....	31
2.3.1. Lehen saioa.....	31
2.3.2. Bigarren saioa.....	32
2.2.3. Hirugarren saioa.....	33
2.3.4. Laugarren saioa.....	33
2.3.5. Bosgarren saioa.....	35
2.3.6. Seigarren saioa.....	36

2.3.7. Zazpigarren saioa.....	37
2.3.8. Zortzigarren saioa.....	38
2.4. Ebaluazioa.....	38
3. Ondorioak.....	39
4. Erreferentzia bibliografikoak.....	39
5. Eranskinak.....	42
5.1. 1. Eranskina. Dislexia.....	42
5.2. 2. Eranskina. AFN-H.....	43

0. Sarrera

Toponimia hitzak greziar etimologian du oinarria, *leku* eta *izen* hitzen elkarketan. Tokian tokiko biztanleen inguruari erreferentzia eginez erabilitako izendapenez gain, hitzok aztertzen dituen zientzia ere bada. Toponimoen analisiaren bitartez, errealitate soziokulturala, bertan hitz egindako hizkuntzen ezagutza, horien jatorri eta eboluzioa, alderdi lexikala, fonetikoa eta beste ezagutzea du helburu aipatutako zientziak.

Garaian garaiko biztanleek bailarak, herrixkak, bizitokiak edo elementu geofisikoak deskribatu, identifikatu eta lokalizatzeko baliatu zituzten toponimoak (Jimeno, 2004a). Mendez mende hitz hauen ezagutza eta erabilera ahoz transmititu da, baita idatziz ere (erregistroak, salerosketak...). Horrela, ondare linguistiko-historiko honek aukera ematen du tokian tokiko hizkuntzen eta dialektoen ikerketetan sakontzeko eta muga geografikoez gain, muga linguistikoak zehazten laguntzeko.

Halaber, toponimoek balio didaktiko ugari izan ditzakete. Euskarari dagokionez, hizkuntzaren barne logika ulertzen lagun dezakete, hizkuntzaren gaineko hausnarketa eta interesa pizteko: lexiko eta atzizki ugari ikas daitezke toponimoen azterketaren bitartez. Gainera, historia, kultura eta identitatearekin hertsiki lotuta dagoenez, gure hizkuntzaren egoeraren jakinaren gainean egoten lagun dezake. Era berean, geografiarekin erabat lotuta dagoenez, iker-eremu horretan ere ikasteko aukera eman dezake.

Azkenik, eta beharbada nerabeekin aritzeko orduan garrantzitsuen, toponimia oso gertukoa izan daiteke edozeinentzat: hiri, herri edo auzoetan bizi gara; izen-deiturak ditugu, eta mendi eta ibaiez inguratuta bizi gara. Edozein antroponimo, oronimo, hidronimo edo toponimo balia daiteke klase guztietako ikasleek hurbileko senti dezaten, eta konturatu gabe, euskaraz eta euskararen gainean ikas dezaten.

Beraz, lan honen helburu filologikoa Iruñerriko toponimo nagusien gaineko bilketa bat egitea izanen da. Helburu praktikoari dagokionez, bilketaren emaitzak praktikara eramatea, zehazki, hitz eratorpena lantzeko baliatzea.

1. Marko teorikoa

1.1 Toponimiaren garrantzia

Euskarari buruz dugun lehen informazioa erromatar garaikoa da, erromatarrak gure lurraldeetara iritsi zirenekoa, garai horretan beste hainbat aurrerapenekin batera iritsi baitzen idazmena. Honen adibide argia dugu latinez idatzitako, baina euskaratik soilik azal daitekeen Lerga herrian aurkitutako (1960) hilarriko idazkuna, II. mendean datatua. Horren aurretik, egiatan ezer gutxi dakigu.

Gaur egun euskara bizirik mantentzen den lurraldean euskara mintzatzen zen ala ez jakiteko, lekukotasun epigrafikorik agertu ez bada ere, baiezkotzat emanen dugu, hala ez izatekotan, egungo egoera ezinezkoa litzateke eta. Antzinaroko euskararen hedapena ezagutzeko, ondorengo bost lan metodoak zehazten ditu Nuñezek (2003) hoberenetik okerrenera zerrendatuz:

- 1- Euskaraz idatzitako epigrafia.
- 2- Latinez idatzitako epigrafietako euskara arkaikoko izen propioak.
- 3- Latinezko testu klasikoetan txertatutako euskarazko izen propioak.
- 4- Erdi Aroko latinezko zein erromantzeetako testuetan txertatutako euskarazko izen propioak.
- 5- Euskal jatorria duten egungo toki-izenak.

Gurean, lehen metodoa erabiltzea ezinezkoa suertatzen da, ez baita euskarazko epigrafiarik gorde. Bigarren metodoarekin hutsuneak topatzen dira lurraldean zehar, nahiz eta aditu askok euskaraz hitz egiten zela uste duten. Hutsune horietan, hirugarren metodoa erabiltzeko corpus falta dago. Gainera, hirugarren eta laugarren metodoak hobesten dira bosgarrenaren aurretik, azken honek denborarekin kamustutako izenekin lan egitea baitakar.

Hala ere, leku-izenak ezinbestekoak dira, eta horrela ekartzen ditu Nuñezek (2003) hainbat adituren hitzak, esaterako, Caro Barojak (ap. Núñez 2003: 63) hala zioen: “Antzinaroko euskararen hedapena ezagutzeko, momentuz egin beharrekoa mugakidetzat ditugun lurraldeen toponimiaren azterketa xehe bat egitea da.” Baita Menendez Pidalek ere: “Toponimiaren azterketak garrantzi historikoa du. Lekukotasun falta dugun garaietan, toponimiak bakarrik ematen ahal digu hedapenaren berri.”

Lehen hiru metodoak dira ziurrenak, nahiz eta aipatu bezala, apenas erabil daitezkeen euskararen kasuan, hala ere Nuñezek (2003: 64) Mitxelenaren hitzak aintzat hartzen ditu:

Gure arbasoen idazmena erromatarrekin batera zihoan, eta erromatartzeak ez zuen soilik idazmen indigena baztertzen, baizik eta bertako hizkuntzaren onomastika ere baztertzen zuen. Denbora tarte labur batean baino ez zen eman latinaren eta euskal onomastikaren arteko bizikidetzeta, hain zuzen Akitanian topatzen duguna. (itzulia)

Beraz, “euskaldunek” ez zuten haien hizkuntzan idazten, eta iberiarrek egin bezala, erromatarren etorrerarekin haien izen propioak erabiltzeari ere utzi zioten. Horrela, ez zen apenas hizkuntza aurre erromatarren arrastorik geratu, nonbait idatzita edota ahozko hizkeran gordetzen ahal ziren toponimoez gain.

Hala eta guztiz ere, azken urteetako aurkikuntza berriek iraganari buruzko ulerkera hau alda dezaketelakoan daude zenbait aditu. Izan ere, 2021ean Aranguren udalerriko Irulegi Burdin Aroko herrixkan brontzezko esku bat topatu zen indusketa lanetan. Zaharberritze prozesuan, piezak idazkunak zituela atzeman zuten eta azterketa epigrafikoa egin ostean, idazkera iberikoan idatzita dagoela ondorioztatu zuten. Lehen ikerketan arabera, baskoi itxura duen grafema bat dago, eta beraz, baskoieraz idatzitako lehen testu honek garaiko biztanleek bere hizkuntzan idazten zutela frogatuko luke:

Ziurrekin signario iberikoan ez dagoen soinu edo fonemaren bat markatzeko egin dituzte hainbat moldakuntza. Zeinu horiek iberiar sistema grafikoan ez ditugu aurkitu, baina bai lurralde baskoian egindako txanponetan. Beraz, Irulegiren piezatik abiatuta, garai hartan funtzionatzen ari zen sistema grafiko baskoi bat bazegoela esan dezakegu. (Velaza, 2022)

1.2 Toponimiaren alderdi didaktikoa

Torresek (2018) Moralaren hitzak biltzen ditu toponimia zer den azaltzeko. Bere ustetan (ap. Torres 2018: 1) toponimoa bere jatorrian, garaian garaiko hiztunek erabiltzen zuten lexikoaren beste elementu bat zen, zehazki, leku bat izen zehatz batekin deitzeko erabiltzen zutena. Hau da, toponimiak, izen identifikagarriak, etiketak edo elementu indibidualizatzaileak sortzeko unean sistema linguistiko jakin batetik edaten du. Beraz, toponimia leku jakin bateko hiztegiaren ikaskuntzarako baliagarria dela uste dut, ez bakarrik hizkuntza nagusiaren elementuak aztertzeko,

baizik eta ikasle bakoitzaren jatorria kontuan hartuta, bere komunitate linguistikoarenak ere aztertzeke.

Seguidok eta Tenak (2021) Dorionen hitzak biltzen dituzte toponimiaren ikerketaren harira, Izan ere, hiru giza zientzia uztartzen ditu, historia, geografia eta linguistika (*apud* Seguido eta Tena 2021: 2). Halaber, lanketa didaktikoa egiteko saiakerak ugariak izan direla aipatzen dute. Baina, ikasketa prozesuaren teoria konstruktibistarekin bat eginez, proposatzen diren atazak ikasleentzat “eingarriak” izan behar direla aipatzen dute. Hau da, hurbileko sentitzen duten egoeretatik abiatu behar da, testuinguru zabalagoetara orokortzeko: ariketa sinpleetatik hasi behar da, ariketaz ariketa gutxinaka zailtasun maila igotzen, modu horretan, ikasleen autonomia era progresiboan erdiesteko. Hau kontuan izanik, toponimiaren azterketatik abiatuta, Lehen Hezkuntzan geografia lantzeko proposamen didaktiko bat egiten dute aipaturiko lanean.

Torresek (2018) toponimiak eskura dituen baliabide linguistiko guztiak erabiltzen dituela azaltzen du, eta beraz, linguistikari dagokionez, toponimia informazio iturri eta baliabide didaktiko garrantzitsua dela azpimarratzen du. Lan horretan Kanariar Uharteetako lexikoa lantzeko proposamen bat egiten du azterketa toponimiko batetik abiatuz, eta horrela, bertako jatorrizko hizkuntzaz gain, bertatik pasatako zenbait hiztunen hizkuntzak topatu ditu toponimoetan fosildurik (portugesak, arabiera, Andaluziako gaztelania...).

Laburbilduz, ugariak izan dira helburu didaktiko batekin egindako azterketa toponimikoak, izan geografiaren, historiaren edota hizkuntzaren alorrean, baita euskarari dagokionean ere. Beraz, aurretik aipatu bezala, lan honetan toponimiaren aplikazio didaktiko bat egiten saiatuko naiz.

1.3. Iruñerriaren inguruko ohar batzuk

1.3.1. Iruñerriko geografia


Iruñerria Nafarroan dago kokatuta, Iberiar Penintsulako iparraldean eta Espainiar Estatuko erkidegoetako batean. Nafarroari dagokionez, egun, politiko-administratiboki zatituta dago eta hala zatiketa hori nola lurralde osoko dibertsitate linguistikoa, neurri handi batean orografiaren ondorio izan daiteke. Izan ere, Nafarroa 3 eremutan dago zatitua euskararen egoera juridiko-politikoari dagokionez: iparraldean, eremu euskaldunean euskarak estatus ofiziala du; erdialdean, eremu mistoan, euskarak estatus koofiziala du; eta azkenik hegoaldean, eremu ez euskaldunean, euskarak ez du estatus ofizialik. Nafarroako Entziklopediaren arabera¹, alderdi fisiko eta geografikoaren arabera Nafarroa hiru eremu orokorretan bana daiteke: Mendialdea, Erdialdea eta Erribera.

1 http://www.enciclopedianavarra.com/?page_id=7176

Eskualde horien berezitasunak kontuan hartuta, bakoitzaren ezaugarri linguistikoak azter daitezke. Lan honetan erdialdeari erreparatuko diot, bertan kokatzen baita aztergai dugun Iruñerria eskualdea.

Iruñea da Iruñerriko gune nagusia. Geografiari erreparatuz, 449 metroko altitudea du eta 23,6 metro karratuko azalera. Nafarroako hiririk populatuena da 203.000 biztanletik gora baitu. Arga ibaiaren bi ertzetan zehar zabaltzen da hiria, eta honekin batera, Sadar eta Elortz ibaiak ere bertatik igarotzen dira. Orografiari dagokionez, Sarbil, Erreniega, Alaitz, Taxoare eta Lakarri mendilerroek inguratzen dute hiria.

Tradizioak dioenez, Iruñeko katedraleko ezkilen oihartzunak zehazten zuen eskualdea osatzen zuten herrien zerrenda. Egun, hauek dira Iruñerria osatzen duten gainerako 14 udalerriak²: Antsoain, Aranguren, Atarrabia, Barañain, Berriozar, Burlata, Eguesibar, Elortzibar, Ezkabarte, Galar, Oltzako zendea, Uharte eta Zizur. Iruñeko auzoei dagokienez, hauek dira Iruñea osatzen dutenak³: Alde Zaharra, Arrotxapea, Azpilagaña, Buztintxuri, Donibane, Ermitagaña-Mendebaldea, Etxabakoitz, Iturrama, Lezkairu, Sanduzelai, Txantrea eta Zabalguneak.



1. Irudia (Iruñerriko mapa geografikoa). [Iturria: Google irudiak]

2 http://www.enciclopedianavarra.com/?page_id=16188

3 <https://www.pamplona.es/eu/la-ciudad/observatorio-urbano/poblacion-y-demografia/barrios>

1.3.2. Iruñerriko historia

Historiari dagokionez, (Nuñez, 2003) ezer gutxi dakigu erromatarrek heldu aurreko garaiari buruz. Lehenengo aipua Estrabon geografo grekoarena da, Pompeioren ohorez, *Pompaelo* izeneko hiriren fundazioa jasotzen baitu k.a. 75. urtean. Hala ere, horrek ez du esan nahi erromatarrek etorri aurretik bertan herririk ez zenik. Izan ere, Brontze eta Burdin Aroko arrastoak topatu dituzte Santa Luzia eta Lezkairu inguruetan.

V. mendearekin batera, bisigodoak iritsi ziren Iberiar penintsulara (Jurio, 2004b) eta Baskonian haien aurka oldartu baziren ere, bisigodoek Santa Maria Iruñeko katedralaren magalean eraikitako elizak, lurralde honetan harremana bestelako zela sala dezake. Halaber, inguruko zendeekin izandako harremana zaharra bezain emankorra dela dirudi. Ez soilik Antsoain, Iza, Oltza, Zizur edo Galar zendeekin, baizik eta Gesalatz, Deierrri, Orbaibar, Tafalla eta Izarbeibarrekin ere. Erdi Aroan zehar, inguruko zendeek “Iruñeko auzo” izateagatik, haien identitate juridikoa babestu zuten pribilegio bera aldarrikatuz.

1.4. Toponimia

1.4.1. Toponimoen bilakaera

Horrela azaltzen du Jimenok (2004a): “Egun, euskara funtsezko elementu duen gure ondare autoktonoa likidatzen ari gara Toponimiak, kartografia garaikidean, gaztelaniazko itxura markatua du. Nafarrek euskal hitzen esanahi edo eduki semantikoa alde batera utzita (...), horien orde zerdal baliokideak jartzeko joera dago.”

XVII. mendera arte Iruñeko diozesia ia erabat euskalduna izan arren (Jurio, 2004b), maila sozialean gutxietsia izan dela diosku Juriok. Izan ere, 1074 urteko *Codex Calixtinus* erromesen gidaliburuan euskal itxura duen *Acer çaltua* toponimoa aipatzean, aldaera “rustiko” edo ez kultutzat jotzen du autoreak. Latinezko *saltus ircorum* aldaera hobesten du eta sotoari erreferentzia egiteko, asken hau jotzen du erabilera kultutzat. Honekin batera, 1164ko Lizarrako Foruan *lingua navarrorum*, *lingua vulgaris*-tzat jotzen da. Joera hau izan da gaurdaino zabaldu dena, eta eragin zuzena izan du toponimoen transmisio eta mantentzean ere.

Cierbideren (1980) artikulua arabera, eta toponimiari erreparatuz, hiru erromanizazio aro izan ziren iberiar penintsularen ipar-ekialdean. Lehenengoa, baskoien eta autrigoiaren lurraldeen mugetaraino iritsi zen, Ebro ibaiaren ingururaino. Erromanizazio prozesuen bidez, bertakoen izendapenak alde batera utzi, eta aldaera latindarren erabilera orokortu zen.

Nuñezek (2003) biltzen duenez, bada atzizki toponimiko bat, euskara hitz egin zen lurralde guztietan agertzen dena, baina, gerora iritsitako hizkuntzek eraginda, aldaera ezberdinak dituena. Jatorri gaskoia duen *-òs* atzizkiak, Nafarroan, Aragoian eta Gaskoinian aldaera ezberdinak ditu: euskal forma lukeen *-os/-oze* atzizkia (Uztarroze, Ezkaroze, Bidankoze...) eta nafar eta aragoiar erromantzeetako *-ués* atzizkia (Binués, Urdués, Sagües...).

Hirugarren prozesua, erromanizazio baino, erromantze prozesutzat jotzen du Cierbidek (1980). Izan ere, XVI. menderaino nafar erromantzeaz aritu beharko litzateke, eta ostean gaztelaniari buruz. Gaztelaniaren eragina ekialdetik mendebaldera zabaldu zen, Tafallatik Arabaraino.

1.4.2. Iruñerriko toponimia

Iruñerriko toponimoetan sartu baino lehen, hiruburuko leku izenaren inguruan ikertutakoa azalduko dut. Izan ere, eskualdearen hiriburu izateaz gain, Iruñerriko herri gehienetan topa dezakegu oinarrian *Iruñea* izena duten zenbait toponimo. Gainera, Unitate Didaktikoari begira, izen hori da ikasle gehienek komunean izan dezaketena, hiri honek baitu institutu gehien.

Jimenok (1991) dioenez, XI. mendetik jasotzen da *Pampilona* aldaera kultuarekin batera *Irunia* leku izena. Erdarazko aldaeraren jatorria Pompeyo militar erromatarrek K.a. 75-74. urteetan eraikitako kanpamentu militarretik letorke, Estrabon geografo grekoak hala jasatu zuen: Pompeyo-polis.

Euskal jatorriko aldaerari dagokionez, Jordanek (2001) dioenez, toponimoaren lehen elementua euskal jatorriko *(h)iri/(h)uri* (hiri) legoke. Konposizio osoari dagokionez, ordea, bi postura nagusi daude.

Lehenik, *Iruñe+a* artikulua determinatzaileaz osaturik legokeela dioen teoria dugu, Mitxelenak berak aldeztutako. Hartara, inguruko hizkeretan *Iruñe* genuke hiriaren izena, ez *Iruña*. Gipuzkoako *Irun* herriarekin lotzen dute toponimo hau. Kontsonante sudurkari palatalari

dagokionez, *e* bokalaren asimilazioaren ondorioztat dute. Bigarrenik, *Iruñ+a* artikulua determinatzaileaz osaturik legokeela dioena. Kasu honetan, zenbaitetan hiriaren izenak duen *e* bokala, deklinabidearen lotura bokalari egozten diote.

Iruñeko etimologia alde batera utzita, hiriak barnebiltzen duen lurraldearen azterketa egitea komeni da, urte luzez eta sakonean aztertu da, eta bide ematen du eskualdearen historia eta egungo egoera ulertzeko.

Jimenoren (1995) arabera, lurraldeok euskaldunak izan ziren XIX. mendeko erdialdera arte. Lurra hiru ekoizpen sektoretan egon zen banatua: basoak (*oian*), larreak (*larre*, *euntze*, *soto*) eta laborantzak. Sektore hauekin batera, meategien ustiapena (*arrobia*, *arrobieta*), gatzagak (*gesal*, *getze*) eta teilagintza (*telleri*) ere aurki zitezkeen.

Jimenok (2004a) biltzen duenez, oinarrizko toponimoak elementu geomorfologikoez osatuta daude eta lurraldeari itxura ematen diote: *mendi*, *munio*, *aitz*, *oian*, *iturri*, *erreka*, *idoi*, *more*, *butzu*, *artadi*, *ezpeldi*, *elordi*, *aritz*, *zugar*, *lizar*, *urritz*... Beste toponimo batzuek lurraren nolakotasuna edo ekoizpen helburua ezaugarritzen dute: *bustin*, *kaskailu*, *legar*, *alor*, *euntze*, *sario*, *soto*, *bide*, *eliza*, *borda*, *zubi*... Aipatutako hitzekin eta beste zenbait izenekin batera, hurrengo atzizkiak batuz, Iruñerrian ohikoak diren toponimo konposatuak osatzen dira: *-a*; *-ak*; *-ain*; *-eta*; *-keta*.

Toponimo konposatuak XVI-XVII. Mendeetan dira datatuak, Olza, Zizur eta Galarreko zendeetan (Jimeno, 2004a). Bi elementuz osatutakoak dira ohikoenak.

- Bi izenez osatutakoak:

Oinarrizko izena eta elementu bereizgarria.

Tipula barazea (Astrain), *Arrano mendia* (Zizur Txikia), *Asari zuloa* (Ororbia), *Talle eunzea* (Toki askotan), *Apez ardanzea* (Sagues), *Guemberen arrobieta*, *Loperenaren larraina* (Astrain), *Estellerri bidea* (Orkoien), *Iruin bidea* (herri gehienetan), *Mercatu bidea* (Asiain), *Chacur bidea* (Sagues).

Oinarrizko izena eta elementu morfologikoa.

Costobaro aldapa (Ororbia), *Arandoain bazterra* (Astrain), *Aiz burua* (Barañain), *Arazuri muga* (Gazolatz).

- Oinarrizko izenaz eta adjektiboez osatutakoak.

Zizur nagusia, Zizur chiquia, Eunze leuna (Orkoien), Arri zabala (Astrain), Ur beroa (Ibero), Ar churia (Undio), Lur gorria (Barañain), Lur belz (Zizur Nagusia), Gaztelu zarra (Arazuri), Zubi macurra (Asiain), Iru mugartea (Paternain).

- Oinarrizko izenaz eta postposizioz osatutakoak:

Erreca aldea, Idoi ondoa, Aiz gaña, Elizpea, Mendi barren, Eliz guibela, Ardanze artea...

1.4.3. Elementu orokorrak

Atal honetan, eskualdean agertzen diren elementu nagusi batzuk azalduko ditut. Hartara, etimo bakoitzaren inguruko azalpen labur bat egin dut, hainbat autorek denboran zehar emandako azalpen eta interpretazioekin.

- *ain*:

Gain hitzetik eratorritakoa da *ain* hainbat ikertzailearen arabera. Toponimo gehienek erreferentzia argia egiten diote leku garai bati, eta *-ain* atzizkiak izaera propioa duen izen izatera igarotzen da hauetan.

Salaberrik (2000) autore eta hainbat ikertzailearen iritziak bildu zituen bere lanean. Atzizki honen etimologiaren inguruko iritzi ugari badaude ere, Goikoetxea, Etxalar, Irigoyen edota Mitxelena bezalako adituek (*apud* Salaberri 2000: 5-6) “gain” esanahia duela eta beraz hitz beretik datorrela onartzen dute kasu gehienetan. Jimenok (1986) *-ain* amaieradun Nafarroako herri zerrendan hurrengoak jasotzen ditu, besteak beste: *Abinzoain* (Zizur), *Adoain* (Etxauribar), *Aindurain* (Zizur), *Alcain* (Galar), *Ansoain* (Antsoain), *Asiain* (Oltza), *Astrain* (Zizur), *Badoztain* (Eguesibar), *Baranain* (Barañain), *Barbatrain* (Galar), *Belascoain* (Etxauribar), *Beriain* (Galar), *Eguicoain* (Antsoain), *Guendualain* (Zizur), *Iazain* (Iruñea), *Ilundain* (Aranguren ibarra), *Imarcoain* (Elortz), *Izain* (Oltza), *Laquidain* (Aranguren, Antsoain), *Lizasoain* (Oltza), *Mansoain*

(Aranguren), *Maquirriain* (Ezkaabarte), *Noain* (Elortz), *Ocarain* (Antsoain), *Oricain* (Ezkaabarte), *Paternain* (Zizur), *Sarrain* (Oltza), *Urbicain* (Iruñea)...

-di/-ti:

Salaberrik (1993) dakarrenez, *do-i* silababikotik letorke atzizkia, Nafarroan *di* aldaera hedatuena den arren. Atzizki hau multzokaria da, eta oro har landare izenekin agertzen da (*Gorosti*, *Pagadi...*). Hala ere, zuhaitzekin loturiko zenbait izenekin (*hosto*, *orbel...*), harri edo lurrarekin zerikusirik duten izenekin (*harea*, *harri...*) eta lur eta urarekin zerikusia duten izenekin (*ur*, *lohi...*) ere ager daiteke. Iruñerrian ondoko toponimoak jasotzen ditu: *Arantzadi* (Iruñea), *Arrosadia* (Iruñea), *Elordi* (Aranguren), *Zumadia* (Uharte), *Arizdigorri* (Etxauribar), *Arridibidea* (Zizur), *Ezpeldia* (Zizur), *Giladi* (Eguesibar)...

-egi/-tegi:

Salaberrik (1993) dioenez, atzizki toponimiko honek lekua, etxea, jabetza adierazten du. Lehen aldaera litzateke zaharrena Mitxelenaren arabera, nahiz eta jatorria oso argi ez izan (*apud* Salaberri 1993: 481). Iruñean *Erletegi*, *Agoztegieta* bezalako toponimoak ditugu.

-eta

Adituek azalpen edo jatorri ezberdina egozten diote atzizki toponimiko honi (Salaberri, 1993), hala ere, badirudi *-aga* atzizkiarekin batera, lekua adierazten duela soilik. Hala ere, aniztasun zentzua ere izan dezake, hala nola, *Justizieta* (“Las justicias”, Iruñea). Iruñerrian *Arriurdineta*, *Agoztegieta*, *Erlategieta*, *Legarreta* (Astrain) bezalakoak ditugu.

Salaberrik (1994) egindako lanean, hainbat autorek *-aga* atzikiaren inguruan emandako datu eta iritziak bildu zituen. Aipatzekoa da Mitxelenak egindako azterketa (*apud* Salaberri 1994: 30), izan ere *-aga* atzizki lokatiboarekin erkatzen baitu. Mitxelenaren ustetan, bi atzizkiak banaketa osagarrian daude, ezin baitira hitz berdinarekin agertu; biak agertzen dira beti hitz amaieran; ez dira toponimoetatik kanpo agertzen. Salaberriren ustez, *-aga* atzizkiak duen funtzio bakarra tokia adieraztea da, izenak leku-izenen multzoan sailkatzea. Lopez-Mugartza (2006: 243-244) ere iritzi berdinekoa da.

Aurretik esan bezala, lan honetan orain arte bildutakoa Unitate Didaktiko bat egitera bideratutako toponimiaren azaleko azterketa bat baino ez da. Lehen atal honetan adituen hitzak jaso ditut ondoren proposatzen ditudan saioetan laguntze aldera. Bigarren atalean ordea, jakintza hau praktikara eramateko proposamen bat egingen dut. Unitate Didaktikoan ez dut atal honetan aipatutakoa zehaztasunez aplikatuko, izan ere, ikasleen datuen araberakoa izanen dira landuko diren atzizkiak.

2. Marko praktikoa

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoa (LOMLOE, 2020) aldaketa garrantzitsuak egiten ditu aurreko arauan; legearen zioen azalpenean adierazten den moduan, aldaketa horietako asko jatorrizko testuan jasotako neurriak berrikusteko beharrari zor zaizkio, hezkuntza sistema XXI. mendeko erronka eta desfioei egokitzearen, Europar Batasunak eta UNESCOk 2020-2030 hamarkadarako zehaztutako helburuekin bat.

Ikuspegi horri jarraituz, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren testu berriak, atariko tituluan, hezkuntzaren printzipio eta helburuen artean aipatzen du, besteak beste, haurren eskubideak benetan betetzeko, Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan ezarritakoaren arabera, hezkuntza inklusioa eta Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalaren printzipioak aplikatzea.

Unitate Didaktiko hau Iruñerriko, eta beraz, Nafarroako institutu batean egiteko prestatu denez, Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curriculumak zehazten duenaren gainean arituko naiz, zehazki ekainaren 29ko 71/2022 Foru Dekretuaren gainean.

2.1. Lege markoa

2.1.1. Etaparen helburuak

Hauek dira Foru Dekretuak zehazten dituen helburuak:

a) Beren betebeharrak erantzukizunez onartzea; beren eskubideak baliatzea, gainerakoekiko begirunez; tolerantzia, lankidetzeta eta pertsonen eta taldeen arteko elkartasuna lantzea; elkarriketa erabiltzea, giza eskubideak gizarte plural baten balio komun gisa sendotzeari begira, eta herritar demokratikoa izateko prestatzea.

b) Diziplina, ikasketa eta laneko ohiturak garatu eta finkatzea, bakarkakoak zein taldekoak, beharrezkoak baitira ikaskuntza lanak eraginkortasunez egiteko eta baliagarriak ere bai, garapen pertsonalari begira.

c) Sexuen arteko desberdintasuna eta haien arteko eskubide eta aukera berdintasuna balioetsi eta errespetatzea. Gizonen eta emakumeen arteko diskriminazioa dakarten estereotipoak arbuiatzea.

d) Norberaren gaitasun afektiboak indartzea nortasunaren esparru guztietan eta besteeiko harremanetan; indarkeria, mota guztietako aurreiritziak eta jokabide sexistak arbuiatzea, eta gatazkak bakebidez konpontzea.

e) Informazio-iturriak erabiltzeko oinarrizko abileziak garatzea, zentzu kritikoaz ezagutza berriak eskuratzeko. Oinarrizko kompetentzia teknologikoak garatzea, eta haien funtzionamendu eta erabileraren gainean hausnarketa etikoan aurrera egitea.

f) Ezagutza zientifikoa jakintza integratuz hartzea, hainbat diziplinan egituratzen dena, eta ezagutzaren eta esperientziaren arloetan arazoak identifikatzeko metodoak ezagutzea eta aplikatzea.

g) Espiritu ekintzailea eta bere buruarekiko konfiantza, parte-hartzea, zentzu kritikoa, ekimen pertsonala, eta ikasten ikasteko, planifikatzeko, erabakiak hartzeko eta erantzukizunak bere gain hartzeko gaitasuna garatzea.

h) Ahoz nahiz idatziz gaztelaniazko (edo, hala badagokio, euskarazko) testu eta mezu konplexuak ulertu eta zuzen adieraztea, eta literatura ezagutzen, irakurtzen eta aztertzen hastea.

i) Atzerriko hizkuntza bat edo gehiago ulertzea eta horretan/horietan modu egokian hitz egitea.

j) Norberaren eta gainerako pertsonen kulturaren eta historiaren oinarrizko alderdiak ezagutzea, balioestea eta errespetatzea, bai eta Nafarroako ondare artistikoa eta kulturala, geografia eta historia eta bertako hizkuntzen, kulturen eta ohituren aniztasuna ere.

k) Norberaren gorputzaren eta gainerakoenen funtzionamendua ezagutu eta onartzea, desberdintasunak errespetatzea, gorputzaren zaintza eta osasun ohiturak sendotzea, eta gorputz hezkuntza eta kirola egitea, garapen pertsonala eta soziala errazteko. Sexualitatearen giza dimentsioa ezagutu eta balioestea, bere aniztasunarekin. Osasunarekin, kontsumoarekin, izaki bizidunen zaintzarekin, enpatiarekin eta begirunearekin (bereziki animalien kasuan) eta ingurumenarekin lotutako ohitura sozialen balorazio kritikoa egitea, eta horiek gordetzen eta hobetzen laguntzea.

l) Arte-sorkuntza aintzat hartzea eta arte-adierazpen guztien hizkuntza ulertzea, hainbat adierazpen eta irudikapen baliabide erabilia.

2.1.2. Funtsezko kompetentziak

Hartara, eta aipaturiko lege eta foruetan oinarriturik, hurrengoak dira Unitate Didaktiko honen bidez landuko diren funtsezko kompetentziak:

<p>Hizkuntza komunikaziorako kompetentzia (HKK)</p>	<p>Hizkuntza komunikaziorako kompetentziaren funtsa interakzioa da –ahozkoa, idatzizkoa, zeinatua edo multimodala–, koherentziaz eta egokitasunaz eginga, hainbat esparru eta testuingurutan eta hainbat asmo komunikatiborekin aritzeko. Berekin dakar modu kontzientean abian jartzea ezagutza, trebetasun eta jarrera guztiak, mezu ahozkoak, idatzizkoak, zeinatuak edo multimodalak ulertu, interpretatu eta modu kritikoan balioestea ahalbidetzen dutenak, manipulazio eta desinformazio arriskuak saihestuta, bai eta eraginkortasunez komunikatzea ere beste pertsona batzuekin, lankidetzan, sormenez, etikaz eta begirunez.</p>
<p>Eleaniztasunerako kompetentzia (ELK)</p>	<p>Eleaniztasunerako kompetentziak berekin dakar hizkuntza bat baino gehiago, ahozkoak nahiz zeinatuak, ikaskuntzan eta komunikazioan modu egoki eta eraginkorrean erabiltzea. Kompetentzia honi esker banakoaren hizkuntza profilak ezagutu eta errespetatzen dira, eta norberaren esperientziak aprobetxatzen dira estrategiak garatzeko, hizkuntzen arteko transferentziak (hizkuntza klasikoak barne) eta bitartekaritza egiteko eta, hala dagokionean, familiaren</p>

	<p>hizkuntzan edo hizkuntzetan zein hizkuntza ofizialetan trebetasunak mantendu eta eskuratzeko. Era berean, dimentsio historiko eta kulturartekoak integratzen ditu, gizartearen hizkuntza eta kultura aniztasuna ezagutu, balioetsi eta errespetatzeko, elkarbizitza demokratikoa sustatzeko helburuarekin.</p>
<p>Konpetentzia digitala (KD)</p>	<p>Konpetentzia digitalak berekin dakar teknologia digitalak modu seguru, osasungarri, jasangarri, kritiko eta arduratsuan erabiltzea, ikasteko, lanerako eta gizartean parte hartzeko, bai eta haiekiko interakziorako.</p> <p>Konpetentzia honetan biltzen dira informazioan eta datuetan alfabetatzea, komunikazioa eta elkarlana, heziketa mediatikoa, eduki digitalak sortzea (programazioa barne), segurtasuna (ongizate digitala eta zibersegurtasunarekin lotutako konpetentziak barne), herritartasun digitalarekin, pribatutasunarekin, jabetza intelektualarekin, arazoak ebaztearekin eta pentsamendu konputazional eta kritikoarekin lotutako gaiak</p>
<p>Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa (KPSII)</p>	<p>Konpetentzia pertsonal, sozial eta ikasten ikastekoak berekin dakar norberari buruz gogoeta egiteko gaitasuna, nor bere burua ezagutu, onartu eta etengabeko hazkunde pertsonala sustatzeko; denbora eta informazioa eraginkortasunez kudeatzea; beste batzuekin elkarlanean aritzea, modu eraikitzailean; erresilientziari eustea; eta ikaskuntza kudeatzea bizitzan zehar. Berekin dakar, halaber, ziurgabetasunari eta konplexutasunari aurre egitea; aldaketetara moldatzea; prozesu metakognitiboak kudeatzen ikastea; elkarbizitzaren kontrako jarrerak identifikatu eta horiek lantzeko estrategiak garatzea; norberaren eta gainerako pertsonen ongizate fisiko, mental eta emozionalean laguntzea eta, horretarako, nor bere burua eta ingurukoak zaintzeko trebetasunak garatzea erantzunkidetasunaren bitartez; etorkizunari begira bizitzeko gaitasuna izatea; enpatia adieraztea, eta gatazkei testuinguru integratzaile eta laguntzazkoan heltzea.</p>
	<p>Herritar konpetentziak laguntzen du ikasleek herritar arduratsu izan daitezen eta bizitza sozial eta zibikoan osotara parte har dezaten; kontzeptu eta egitura sozial, ekonomiko, juridiko eta</p>

<p>Herritar kompetentzia (HK)</p>	<p>politikoen ulermenean oinarritzen da, bai eta mundu mailako gertaeren ezagutzan eta jasangarritasunarekiko konpromiso aktiboan eta munduko herritarra izatea lortzearekikoan. Alfabetatze zibikoa barne biltzen du, giza eskubideen errespetuan oinarritutako kultura demokratiko bati dagozkion balioak kontzienteki onartzea, gure garaiko arazo etiko nagusiei buruzko gogoeta kritikoa egitea eta bizimodu jasangarri bat garatzea, Agenda 2030ean jasotako Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat datorrena.</p>
<p>Ekimenerako kompetentzia (EK)</p>	<p>Ekimenerako kompetentziak berekin dakar aukera eta ideien gainean jardutera bideratutako bizi-ikuspegi bat garatzea, beste pertsona batzuentzako balioa duten emaitzak sortzeko behar diren ezagutza espezifikoa erabiliz. Hainbat estrategia ematen ditu, ahalbidetzen dutenak begirada egokitzea, beharrak eta aukerak detektatzeko; pentsamendua entrenatzea, ingurunea aztertu eta ebaluatzeko eta ideiak sortu eta birplanteatzeko, irudimena, sormena, pentsamendu estrategikoa eta gogoeta etiko, kritiko eta eraikitzailea erabilita, sormen eta berrikuntza prozesuen barruan; eta ikasteko, arriskuak hartzeko eta ziurgabetasunari aurre egiteko gogoia piztea. Era berean, berekin dakar informazioan eta ezagutzan oinarritutako erabakiak hartzea eta elkarlan malgu izatea beste pertsona batzuekin, motibazioz, enpatiaz eta komunikazio eta negoziatorako trebetasunekin, planteatutako ideiak gauzatzeko, balio soziala, kulturala eta ekonomiko-finantzarioa duten proiektu jasangarriak planifikatuta eta kudeatuta.</p>
<p>Kulturaren kontzientzia eta adierazpenerako kompetentzia (KKAK)</p>	<p>Kulturaren kontzientzia eta adierazpenerako kompetentziak berekin dakar ulertu eta errespetatzea kultura guztietan ideiak, iritziak, sentimenduak eta emozioak sormenez eta askotariko adierazpen artistiko eta kulturalen bidez adierazi eta komunikatzeko modua. Berekin dakar, halaber, norberaren ideiak eta norberak gizartean betetzen duen tokia edo zeregina ulertu, garatu eta adierazteko konpromisoa. Era berean, eskatzen du norberaren identitatea bilakaeran ulertzea, baita kultura ondarearena ere, aniztasuna bereizgarri duen mundu batean, eta benetan jabetzea artea eta beste adierazpen kultural batzuk munduari</p>

	begiratzeko eta itxura emateko modu bat izan daitezkeela.
--	---

2.1.3. Deskriptore operatiboak

Halaber, hauexek izanen dira funtsezko kompetentzia hauen deskriptore operatiboak:

Hizkuntza komunikaziorako kompetentzia (HKK)	HKK1. Badaki ahoz, idatziz, zeinuz edo modu multimodalean adierazpenak egiten, koherentziaz, zuzentasunez eta testuinguru sozialetara egokituta, eta parte hartzen du interakzio komunikatiboetan, lankidetzarako jarrerarekin eta errespetuz, bai informazioa trukatzeko, ezagutza sortzeko eta iritziak transmititzeko, bai lotura pertsonalak sortzeko.
	HKK2. Esparru pertsonal eta sozialeko, hezkuntza esparruko eta esparru profesionaleko testuak (ahozkoak, idatziak, zeinatuak eta multimodalak) ulertu, interpretatu eta modu kritikoan balioesten ditu, askotariko testuinguruetan modu aktibo eta informatuan parte hartzeko eta ezagutza eraikitzeko.
	HKK3. Askotariko iturrietatik datorren informazioa lokalizatu, hautatu eta kontrastatzen du gero eta modu autonomoagoan, haren fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatzen ditu irakurketaren helburuen arabera eta manipulazio eta desinformazio arriskuak saihestuta, eta informazio hori ezagutza bihurtzen du, ikuspuntu kritiko eta pertsonal batetik komunikatzeko, jabetza intelektualarekiko begirunez jokatzear batera.
Eleaniztasunerako kompetentzia (ELK)	ELK1. Familiaren hizkuntzaz edo hizkuntzez gainera, beste hizkuntza bat edo gehiago eraginkortasunez erabiltzen ditu, bere komunikazio beharrei erantzuteko, modu egokian bai bere garapen eta interesetarako bai esparru pertsonal eta sozialeko, hezkuntza esparruko eta esparru profesionaleko hainbat egoera eta testuingurutarako.
	ELK2. Bere esperientzietatik abiatu, hizkuntzen arteko transferentziak egiten ditu, komunikaziorako estrategia moduan eta bere

	hizkuntza-errepertorioa zabaltzeko.
Konpetentzia digitala (KD)	KD1. Bilaketak egiten ditu Interneten, baliozkotasun, kalitate, gaurkotasun eta fidagarritasun irizpideekin, eta modu kritikoa hautatzen ditu emaitzak eta artxibatzen ditu, berreskuratu, erreferentziatu eta berrerabiltzeko, jabetza intelektuala errespetatuta.
	KD2. Ikaskuntzarako bere ingurune pertsonal digitala kudeatu eta erabiltzen du ezagutza eraikitzeko eta eduki digitalak sortzeko, informazioaren tratamendurako estrategien bidez eta zenbait tresna digital erabilia; horietatik egokiena hautatu eta konfiguratu du egin beharreko lanaren eta etengabeko ikaskuntza beharren arabera.
	KD3. Komunikatzen da, parte hartzen du, elkarlanean eta interakzioan aritzen da edukiak, datuak eta informazioa partekatuz, tresna edo plataforma birtualak erabiliz, eta arduraz kudeatzen ditu bere ekintzak, presentzia eta ikusgaitasuna sarean, arlo digitalean herritar aktibo, zibiko eta gogoetatsua izateko.
	KD5. Aplikazio informatiko errazak eta sormenezko konponbide teknologiko jasagarriak garatzen ditu arazo zehatzak ebazteko edo proposatutako erronkei erantzuteko; interesa eta jakin-mina agertzen ditu teknologia digitalen bilakaeraz eta haien garapen jasagarriaz eta erabilera etikoaz.
Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa (KPSII)	KPSII1. Bere emozioak erregulatu eta adierazten ditu, eta baikortasuna, erresilientzia, autoeraginkortasuna eta ikaskuntzarako asmoaren eta motibazioaren bilaketa indartzen ditu, erronkak eta aldaketak kudeatzeko eta bere helburuekin harmonizatzeke.
	KPSII3. Modu proaktiboan ulertzen ditu beste pertsonen ikuspegiak eta esperientziak eta bere ikaskuntzan txertatzen ditu, talde-lanean parte hartzeko, eta modu ekitatiboan banatu eta onartzen ditu zereginak eta ardurak, eta lankidetzazko estrategiak erabiltzen ditu.
	KPSII4. Autoebaluazioak egiten ditu bere ikaskuntza prozesuaz, eta iturri fidagarriak bilatzen ditu informazioa baliozkotu, oinarritu eta kontrastatzeko eta ondorio garrantzitsuak lortzeko.

<p>Herritar kompetentzia (HK)</p>	<p>HK1. Aztertu eta ulertzen ditu bere identitatearen alderdi sozial eta herritarrari dagozkion ideiak eta hura ezartzen duten egitate kultural eta historikoak, baita arauen arlokoak ere; araukiko errespetua agertzen du, eta enpatia, ekitate eta espirtu eraikitzailea beste pertsonetikiko interakzioan edozein testuingurutan.</p>
<p>Ekimenerako kompetentzia (EK)</p>	<p>EK1. Beharrak eta aukerak aztertzen ditu eta erronkei zentzu kritikoaz aurre egiten die, haien jasangarritasunaren balantzea eginda eta ingurunean izan dezaketen eragina balioetsita, ideia eta soluzio berritzaileak, etikoak eta jasangarriak aurkezteko, esparru pertsonal eta sozialean, hezkuntzakoan eta profesionalean balio sortzera zuzendutakoak.</p> <p>EK3. Ideia eta konponbide baliotsuak sortzeko prozesua garatzen du eta erabakiak hartzen ditu arrazoituta; horretarako, plangintza eta kudeaketa estrategia zaluak erabiltzen ditu, eta egindako prozesuaz eta lortutako emaitzaz gogoeta egiten du, prototipo berritzaileak eta baliotsuak sortzeko prozesua burutzeko, eta ikasteko aukeratzat hartzen du esperientzia.</p>

2.1.4. Kompetentzia espezifikoak

Era berean, hurrengoak dira Unitate honetan jorratuko diren eta Euskara eta Literatura ikasgaiari dagozkion kompetentzia espezifikoak eta mailari dagozkion ebaluazio irizpideak:

2.1.4.1. Bigarren kompetentzia espezifikoa

Ahozko testuak eta testu multimodalak ulertu eta interpretatzea, zentzu orokorra eta informazio aipagarriena bilduz, igorlearen ikuspegia eta asmoa identifikatuz eta fidagarritasuna, forma eta edukia balioetsiz, ezagutza eraikitzeko, irizpidea eskuratzeko eta aisialdiaren eta gozamenaren aukerak zabaltzeko. Kompetentzia espezifiko hau irteera-profileko deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, ELK2, STEM1, KD2, KD3, KPSII4, HK3.

Ebaluazio irizpideak:

- 2.1. Esanahi orokorra, egitura eta informaziorik aipagarriena ulertzea, behar komunikatiboen arabera eta igorlearen asmoaren arabera, esparru desberdinetako eta nolabaiteko zailtasuneko ahozko testuetan eta testu multimodaletan, kode desberdinen arteko interakzioa aztertuz
- 2.2. Nolabaiteko zailtasuneko ahozko testu eta testu multimodalen forma eta edukia balioestea, haien kalitatea, fidagarritasuna eta erabilitako kanalaren egokitasuna balioetsiz, baita erabilitako komunikazio prozeduren eraginkortasuna ere.

2.1.4.2. Hirugarren kompetentzia espezifiko

Ahozko testuak eta testu multimodalak produzitzea jarriotasunez, koherentziaz, kohesioz eta erregistro egokiz, aintzat hartuta diskurtso-generoen berezko konbentzioak, eta ahozko interakzioetan parte hartzea lankidetzara eta errespetua oinarri dituen jarrera batekin, bai ezagutza eraikitze eta lotura pertsonalak ezartzeko, bai modu aktibo eta informatuan parte hartzeko testuinguru sozialetan. Kompetentzia espezifiko hau irteera-profileko deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK3, HKK5, ELK2, STEM1, KD2, KD3, HK2, EK1.

Ebaluazio irizpideak:

- 3.1. Nolabaiteko luzera eta zailtasuneko ahozko azalpen eta argudioak ematea, planifikazio-maila desberdina edukita, norberaren, gizartearen, hezkuntzarako eta lanbiderako intereseko gaiei buruz, diskurtso-generoen berezko konbentzioekin bat, jarriotasunez, koherentziaz, kohesioz eta erregistro egokiz, euskarri desberdinetan eta hitzezko eta hitzez kanpoko baliabideak erabiliz eraginkortasunez.
- 3.2. Modu aktiboan eta egokian parte hartzea ahozko interakzio informaletan, talde-lanean eta elkarrizketa eiteko ahozko egoera formaletan, entzute aktiboko jarrerarekin eta elkarrizketarako lankidetzako eta jendetasun linguistikoko estrategiekin.

2.1.4.3. Laugarren kompetentzia espezifikoa

Testu idatziak ulertzea, interpretatzea eta balioestea, zentzu kritikoarekin eta irakurtzeko asmo desberdinekin, esanahi orokorra eta ideia nagusiak eta bigarren mailakoak ezagutzea, igorlearen asmoa identifikatuz, edukiaren eta formaren gainean hausnartuz eta haren kalitatea eta fidagarritasuna ebaluatuz, askotariko komunikazio beharrei eta interesei erantzuteko eta ezagutza eraikitzeke. Kompetentzia espezifiko hau irteera profileko deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK3, HKK5, ELK2, STEM4, KD1, KPSII4, HK3.

Ebaluazio irizpideak:

- 4.1. Esanahi orokorra, egitura, informaziorik aipagarriena eta igorlearen asmoa ulertu eta interpretatzea esparru desberdinetako idatzizko testu eta testu multimodal errazetan, irakurtzeko helburu desberdinei erantzunez eta beharrezko inferentziak eginez.
- 4.2. Kritikoki balioestea nolabaiteko zailtasuneko testuen edukia eta forma, haien kalitatea eta balioetsiz, baita erabili diren prozedura linguistikoen eraginkortasuna ere.

2.1.4.4. Bosgarren kompetentzia espezifikoa

Idatzizko testu eta testu multimodal koherente, kohesionatu, egoki eta zuzenak produzitzea, kontuan izanik hautatutako diskurtso-generoaren berezko konbentzioak, ezagutza eraikitzeke eta modu informatuan, eraginkortasunez eta sormenez erantzuteko eskaera komunikatibo jakin batzuei. Kompetentzia espezifiko hau irteera-profileko deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK3, HKK5, STEM1, KD2, KD3, KPSII5, HK2.

Ebaluazio irizpideak:

- 5.1. Nolabaiteko luzerako idatzizko testuen eta testu multimodalen idazketa planifikatzea, kontuan hartuta komunikazio egoera, hartzailea, asmoa eta kanala; zirriborroak idatzi eta berrikustea, berdinen arteko elkarrizketaren bidez eta kontsultarako tresnen bidez, eta azken testu bat aurkeztea, koherentzia, kohesioa eta erregistro egokia dituen.

- 5.2. Prozedurak erabiltzea testuak aberasteko, aintzat harturik diskurtsoaren, hizkuntzaren eta estiloaren alderdiak, zehaztasun lexikoarekin eta zuzentasun ortografiko eta gramatikalarekin.

2.1.4.5. Seigarren kompetentzia espezifiko

Askotariko iturrietatik ateratako informazioa hautatu eta alderatzea gero eta autonomia handiagoarekin, iturri horien fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatuz irakurketa helburuen arabera eta manipulazio eta desinformazio arriskuak saihestuz, eta, orobat, informazio hori integratzea eta ezagutza bilakatzea, informazio hori komunikatzeko ikuspuntu kritiko eta pertsonala hartuz eta jabetza intelektualarekin errespetuz jokatzuz. Kompetentzia espezifiko hau irteera-profileko deskriptore hauekin lotzen da: HKK3, KD1, KD2, KD3, KD4, KPSII4, HK2, EK3.

Ebaluazio irizpideak:

- 6.1. Iturri desberdinetako informazioa aurkitu, hautatu eta erkatzea gero eta autonomia handiagoarekin, haren fidagarritasuna eta egokitasuna neurtuz irakurketa helburuen arabera, norberaren eskemetan antolatu eta txertatzea, eta berriz lantzea eta sormenaz komunikatzea, ikuspegi kritiko batetik eta jabetza intelektualaren printzipioak errespetatuz.
- 6.2. Ikerketa lanak prestatzea gero eta autonomia handiagoarekin, euskarri desberdinetan, interes akademiko, pertsonal edo sozialeko zenbait gairi buruz, hautatutako informazioa abiapuntu hartuta.
- 6.3. Teknologia digitalak modu kritikoan, seguruan, jasangarrian eta osasungarrian erabiltzeko ohiturak hartzea informazioa bilatu eta komunikatzeko.

2.1.4.6. Bederatzigarren kompetentzia espezifiko

Hizkuntzaren egituraren eta haren erabileren gaineko ezagutza mobilizatzea eta gogoeta egitea gero eta autonomia handiagoarekin hautu linguistikoei eta diskurtsiboei buruz terminologia egokia erabiliz, kontzientzia linguistikoa garatzeko, komunikazio errepertorioa handitzeko eta trebetasunak hobetzeko, hala ahozko eta idatzizko produkzioarako, nola ulermen eta interpretazio

kritikorako. Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profileko deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, ELK2, STEM1, STEM2, KPSII5.

Ebaluazio irizpideak:

- 9.1. Norberaren testuak gero eta autonomia handiagoarekin berrikustea eta hobetzeko proposamenak egitea, eta, horretarako, aldaketak arrazoitzea gogoeta metalinguistikotik eta interlinguistikotik abiatuta eta metahizkuntza espezifikorekin.
- 9.2. Igorlearen komunikazio xedearen eta hautu linguistikoaren arteko lotura azaldu eta argudiatzea, baita hartzaileengan dituzten ondorioak ere, hizkuntzaren gaineko ezagutza esplizitua eta metahizkuntza espezifikoa erabiliz.
- 9.3. Alderdi orokorrak formulatzea hizkuntzaren funtzionamenduaren alderdi batzuei buruz, enuntziatuen behaketa, konparazio eta eraldaketatik abiatuta, eta hipotesiak egiteari eta kontraadibideak bilatzeari buruz, metahizkuntza espezifikoa erabiliz eta hiztegiak, eskuliburuak eta gramatikak kontsultatuz gero eta autonomia handiagoarekin.

2.1.5. Oinarrizko jakintzak

Hauek dira Unitate Didaktiko honetan landuko diren ekainaren 29ko71/2022 Nafarroako Foru Dekretuak Euskara eta Literatura ikasgaiaren 4. mailarako zehazten dituen oinarrizko jakintzak:

A) Hizkuntza eta hiztunak

- A.6: Aurreiritzi eta estereotipo linguistikoak aztertzea eta zalantzan jartzea. Hizkuntzen arteko hartu-emanen fenomenoak: elebitasuna, maileguak, interferentziak. Hizkuntzen arteko diglosia eta dialektoen artekoa.
- A.7: Eskubide linguistikoak aztertzea, eta nola zehazten diren lege eta adierazpen instituzionaletan.

B) Komunikazioa

B1 Testuingurua

- B1.1: Komunikazio egintzaren osagaiak: egoeraren formaltasun-maila eta izaera (publikoa edo pribatua); solaskideen arteko distantzia soziala; komunikazio xedeak eta asmoen interpretazioa; komunikazio kanala eta komunikazioaren hitzik gabeko osagaiak.

B2 Diskurtso-generoak

- B2.1: Oinarrizko testu sekuentziak, arreta berezia jarritz argudio eta azalpenetan.
- B2.2: Testuen ezaugarriak: koherentzia, kohesioa eta egokitasuna.
- B2.3: Esparru pertsonalaren berezko diskurtso-generoak: elkarrizketa, arreta berezia jarritz solaskidearen irudia mehatxatzen duten hizketa egintzetan (desadostasuna, kexa, agindua, gaitzespena).
- B2.4: Hezkuntza esparruaren berezko diskurtso-generoak.
- B2.5: Esparru sozialaren berezko diskurtso-generoak. Sare sozialak eta hedabideak. Etiketa digitala eta desinformazioaren arriskua, manipulazioarena eta pribatutasuna urratzekoa sarean. Irudia eta osagai paratestualak aztertzea testu ikoniko-hitzezkoetan eta multimodaletan.

B3 Prozesuak

- B3.2: Ahozkoaren ulermena: testuaren esanahi orokorra eta testuko zatien arteko erlazioa, informazio garrantzitsua hautatu eta gordetzea. Igorlearen asmoa. Hitzezko nahiz hitzik gabeko hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak detektatzea. Testuaren forma eta edukia balioestea.
- B3.3: Ahozkoaren ekoizpen formala: plangintza eta informazio bilaketa, testualizazioa eta berrikuspena. Audientziara eta azalpenaren denborara egokitzea. Hitzik gabeko osagaiak. Diskurtsoaren eta hizkuntzaren ezaugarriak ahozkoaren hausnartze argudiatua.

- B3.4: Irakurriaren ulermena: testuaren esanahi orokorra eta haren zatien arteko erlazioa. Igorlearen asmoa. Hitzeko hizkuntzaren eta hizkuntza ikonikoaren erabilera diskriminatzaileak hautematea. Testuaren forma eta edukia balioestea.
- B3.5: Idatzizko ekoizpena: plangintza, testualizazioa, berrikuspena eta edizio zenbait euskarritan. Idaztea pentsamendua antolatzeke: oharrak hartzea, eskemak, kontzeptu mapak, definizioak, laburpenak, etab.
- B3.6: Alfabetatze mediatiko eta informazionala: informazioa bilatu eta hautatzea fidagarritasun, kalitate eta egokitasun irizpideak erabiliz; informazioaren azterketa, balorazioa, berrantolaketa eta sintesia norberaren eskemetan eta ezagutza bihurtuta; sormenezko komunikazioa eta hedapena, jabetza intelektuala errespetatuz. Plataforma birtualak erabiltzea eskolak proiektuak egiteko.

B4. Osagai linguistikoak ezagutzea eta diskurtsoan erabiltzea

- B4.1: Subjektibotasuna adieraztea azalpen eta argudio testuetan. Forma deiktikoek (konfiantzazko eta jendetasunezko formulak) komunikazio egoeraren arabera hartzen dituzten aldaerak identifikatu eta erabiltzea.
- B4.2: Baliabide linguistikoak erregistroa komunikazio egoerara egokitzeko.
- B4.3. Oinarrizko azalpen prozedurak: aposizioa eta erlatiboazko perpausak.
- B4.4: Kohesio mekanismoak. Lokailu banatzaileak, ordenazkoak, kontrastezkoak, azalpenezkoak, kausazkoak, ondoriozkoak, baldintzazkoak eta hipotesizkoak. Barne erreferentziako mekanismoak, mekanismo gramatikalak eta lexikoak (esanahi abstraktuko hiperonimoak eta nominalizazioak).
- B4.5: Aditz formak koherentziaz erabiltzea testuetan. Denborazko korrelazioa perpausak koordinatzean eta mendeko perpausak sortzean, eta kontatutako diskurtsoan.

- B4.6: Zuzentasun linguistikoa eta testuen berrikuspen ortografikoa eta gramatikala. Hiztegiak, kontsultarako eskuliburuak eta zuzentzaile ortografikoak erabiltzea, euskarri analogikoan nahiz digitalean.
- B4.7: Puntuazio zeinuak, testu idatzia antolatzeke mekanismo gisa. Esanahiarekin duten harremana.

D) Hizkuntzari buruzko hausnarketa

- D1. Ahozko hizkuntzaren eta idatzizkoaren arteko diferentzia nagusiak eta intersekzioak, alderdi sintaktikoak, lexikoak eta pragmatikoak aintzat hartuta.
- D2: Hizkuntza sistema gisa eta haren oinarritzko unitateak ezagutzea, kontuan hartuta maila desberdinak: soinua eta idazketa sistema, hitzak (forma eta esanahia), nola antolatzen diren diskurtsoan (hitzen ordena, perpausen osagaiak edo esanahien arteko lotura).
- D3: Hitzen forma (kategoria gramatikala) eta funtzioa (perpaus bakunaren funtzio sintaktikoak) bereiztea, eta kategoriaz aldatzeko prozedura lexikoak (hizkiak) eta sintaktikoak finkatzea.
- D4: Perpaus bakunaren eskema semantikoaren eta sintaktikoaren arteko harremana. Enuntziatuak behatu eta eraldatzea eskema horiekin bat eta beharrezko terminologia sintaktikoa erabiltzea.
- D5: Hitzak eskuratu eta sortzeko prozedurak. Esanahiaren aldaketei buruzko hausnarketa, hitzen arteko harreman semantikoak eta haien balio denotatiboak eta konnotatiboak testuinguruaren eta komunikazio xedearen arabera.
- D6. Gero eta autonomia handiagoarekin erabiltzea hiztegiak eta gramatika eskuliburuak gramatikari buruzko oinarritzko informazioa lortzeko.

2.2. Aniztasunaren trataera

65/2012 Foru Aginduan oinarriturik, eta ikastetxeetako errealitatea ezaguturik, berariazko garrantzia du aniztasunaren trataerari dagokionez neurriak hartzea. Eranskinetan txertatu ditut dislexia eta AFN-H (Arreta faltagatikoa nahasmendua eta hiperaktibitatea) nahasmendua duten ikasleekin hartu beharreko neurri eta aholkuak.

2.3. Saioak

Saio hauen bitartez, euskarak hitz berriak sortzeko duen hitz eratorpenaren baliabidea zertan den ikasten saiatuko gara. Horretarako, lehenik eta behin toponimiaz arituko gara, lan honen ikerketaren xedea baita.

Unitatean zehar egindako ariketa guztiak portfolio batean gorde beharko dituzte ikasleek, amaieran, irakasleak ebaluazio jarraitua egiteko aukera izan dezaten. Gainera, zer eta nola ebaluatuko den azalduko zaie, hasi aurretik jakin dezaten.

Unitateko amaierako proiektua ikasleen auzo, herri edo abizenaren azterketa izanen da. Hartara, ikasleek (banaka, binaka edo taldeka) izen bat aukeratu, eta azterketa toponimikoa egingen dute, historia, geografia eta hizkuntza uztartuz. Azken saioan ahozko aurkezpenak egingen dituzte. Bide batez, toponimiaren azterketak Historia edo Geografia ikasgaiekin batera, Iruñeko (edo herriko) bisita gidatu bat egiteko aukera eskaintzen du, zentroaren baliabide eta ezaugarrien arabera.

Eskola guztien amaieran, landutako materiala *Classroom*ean gordetzea komeni da, ikasleek etxean errepara dezaten edo eskolara etorri ez den ikasleak eskura izan dezaten.

2.3.1. Lehen saioa

Ikasleek *Google* inprimakia⁴ beteko dute. Inprimaki honen emaitzen arabera sortuko ditu irakasleak taldeak. Izan ere, gerta liteke euskal jatorria ez den beste bateko abizenak izatea, edo herririk ez izatea. Hortaz, taldeak orekatzeari begira, eta ikasleen artean ezberdintasun nabarmenik ez sortzeari begira sortuko ditu taldeak. Ondoren, honakoa azalduko zaie eskolan:

4 <https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSdJdxJ7tuRhJuS6dctHStVtAjNPI7kpkznHXm6tJcUHG0WzA/viewform>

Toponimia lekuen izenak aztertzeaz arduratzen den diziplina da, bai hirienak, bai naturako elementuenak. Hau da, lurralde baten izendapen geografikoa aztertzen duen zientzia da.

Toponimia diziplina garrantzitsua da eskualde baten historia, geografia eta kultura ulertzeko, izan ere, lekuen izenek eremu geografiko baten etimologiari, bilakaerari eta aldaketa historikoei buruzko informazioa eman dezakete. Gainera, toponimoak komunitate baten kultura nortasunaren funtsezko zati dira, eta horiek aztertzeak toki jakin bateko hizkuntza eta kultura ondarea zaintzen eta balioesten lagun dezake.

Abizenak toponimiarekin hainbat modutan egon daitezke erlazionatuta, jatorriaren eta esanahiaren arabera. Kasu batzuetan, abizenak leku baten izenarekin zuzenean erlazionatuta egon daitezke, Etxarri, Etxauri edo Zizur bezalako abizenetan gertatzen den bezala, toki izenetatik edo ezaugarri geografiko espezifikoei eratorriak baitira.

Oro har, abizenak informazio-iturri garrantzitsuak izan daitezke toki jakin bateko toponimia eta historia ulertzeko, sarritan tokiko historiarekin eta kulturarekin lotuta baitaude.

Jarraian, inprimakian jasotako abizen eta herri izen interesgarriak (euskal jatorrikoak) bilduko ditugu, eskolan bertan aztertzen hasteko. Zer esan nahi dute? Zer beste hitzekin erlazionatzen dute? Taldeka jarrita, hipotesiak egiteko eskatu diegu, inon begiratu gabe. Portfolioaren lehen atala izanen da, amaierako lanarekin alderatu eta ikasitakoa balioets dezaten. Hurrengo eskolarako, galde dezatela etxean.

Konpetentziak: HKK, KD, KPSII, EK, KKAK.

Ebaluazio irizpideak: 2.1; 3.1; 3.2; 9.1; 9.2; 9.3.

Oinarrizko jakintzak: A6; B2.3; B2.4; B3.2; B4.1; B4.2; D2; D3; D5.

2.3.2. Bigarren saioa

Aurreko eskolan landutakoa errepasatu ostean, etxean jaso dutena entzunen dugu. Ondoren, interesgarriak diren izenak arbelean jarri eta *Chromebook*-ak baliatuz, interneten jatorria bilatzen saiatuko gara. Horretarako, *izena etimologia* jarriko dugu bilatzailean. Hitz elkarketa bidez eta atzizki bidezko hitz elkartuak ditugu, beraz, bi elementuak aztertzen eta ulertzen saiatuko gara.

Gerora, bereizitako elementuak beste abizen edo herri izenekin erkatuko ditugu, ikus dezagun, zenbat hitz sor daitezkeen (eta dauden) hitz elkarketa eta eratorpenaren bidez.

Hurrengo egunerako Iruñerriko toponimia nagusia eta txikia begira dezaten eskatuko diegu, ikasitakoaren erabilera praktikoa ikus dezaten. Garrantzi handikoa da ikasleen gertuko elementuak erabiltzea ikasgaia bere egin dezaten. Horregatik proposatzen dut haien abizenen edo herrien gainean jardutea, beren interesekoa (interesgarriagoa, behintzat) izan dadin.

Kompetentziak: HKK, ELK, KD, KPSII, EK, KKAK.

Ebaluazio irizpideak: 3.1; 3.2; 4.1; 4.2; 6.1; 6.2; 6.3; 9.1; 9.2; 9.3.

Oinarrizko jakintzak: A6; B2.3; B2.4; B3.2; B3.3; B3.4; B3.6; B4.1; B4.2; B4.3; D1; D2; D3; D5; D6.

2.2.3. Hirugarren saioa

Aurreko egunekoa freskatu eta Iruñerriko toponimiaz arituko gara. Azalpenekin hasi baino lehen, Nafarroako gobernuko “Euskarabidea” saileko podcast bat⁵ entzunen dugu. Ikasleek ekarritakoa begiratu eta aztertuko dugu. Saio honen helburua hitz eratorpena⁶ lantzea izanen da, beraz atzizki bidezko toponimia azpimarratuko dugu gramatikak dakarrena azaldu aurretik.

Sareko Euskal Gramatikak dakarren sailkapena idatziko dugu arbelean, eta binaka sail bakoitzeko hitz bat pentsa dezaten eskatuko diegu. Ondoren, denon artean zuzenduko dugu.

Kompetentziak: HKK, KPSII, EK, KKAK.

Ebaluazio irizpideak: 2.1; 2.2; 3.2; 4.1; 4.2; 9.1; 9.2; 9.3.

Oinarrizko jakintzak: B2.1; B2.2; B2.3; B2.4; B2.5; B3.2; B3.3; B3.4; B4.2; B4.3; B4.4; D1; D2; D3; D5.

2.3.4. Laugarren saioa

5 https://www.ivoox.com/iruneko-toponimia-audios-mp3_rf_82676594_1.html

6 <https://landalan.weebly.com/1-eratorpena.html>

Eskolarekin hasteko, internet bidez sortutako letra zopa bat egiteko eskatuko diegu. Letra zopan eratorpenaren bidez sortutako zenbait hitz izanen ditugu. Hitz guztiak topatzean, atzizkien inguruan hausnartuko dugu: zein dira, zein esanahi dute, zein hitzekin elkartzen dira... Finean, aurreko eskolako laburpen txiki bat eginen dugu jolas baten bidez.

Eskola amaitzeko, binaka jarri, eta letra zopa bana egin dezaten eskatuko diegu, ondoren haien bikoteak egin dezan. Letra zopan hitz eratorriak agertu beharko dira, ahal delarik toponimoetan topatu ditugun atzizkien bidez sortutakoak, batez ere, proiektuari begira informazioa biltzen has daitezen. Horrela, egungo hizkuntzan oraindik ere erabilera dutela ikus dezakete.

hitz eratorpena

C	E	S	K	U	K	A	D	A	F	N	Z	C	F
U	K	G	I	D	A	Z	L	E	J	N	E	U	J
V	A	F	G	X	V	B	S	Y	L	V	R	K	M
V	E	N	M	X	A	M	E	S	K	E	R	I	A
M	A	I	T	A	S	U	N	A	E	S	E	C	B
I	U	T	O	P	E	J	Q	O	K	R	T	H	K
E	R	O	S	K	E	T	A	Z	I	V	E	W	K
D	R	O	L	B	J	Q	T	W	N	I	G	Q	T
T	V	Y	Q	U	R	I	M	P	T	W	I	J	S
L	L	V	P	P	L	W	W	U	Z	N	D	E	P
M	G	B	E	R	T	S	O	L	A	R	I	C	S
U	I	C	J	Y	O	A	N	W	I	E	H	V	B
Q	K	V	T	L	K	Z	K	L	L	O	G	N	F
P	F	B	W	A	D	R	C	X	E	R	O	B	D

7

7 Erantzunak: Eskukada, idazle, ameskeria, maitasuna, erosketa, bertsolari.
Educima.com web orrialdean nik egina.

Konpetentziak: HKK, ELK, KD, KPSII, HK, EK, KKAK.

Ebaluazio irizpideak: 3.2; 9.1; 9.2; 9.3.

Oinarrizko jakintzak: B2.3; B2.5; B3.2; B4.1; B4.2; B4.3; B4.6; D1; D2; D3; D5; D6.

2.3.5. Bosgarren saioa

Saio guztietan bezala, aurreko saioan egindakoa oroitaraziko dugu, memoria egin dezagun. Saio honetan Eki proiektuak dakarren aurrizkien, artizkien eta atzizkien inguruan arituko gara, hori baita curriculumak agintzen duena. Horretarako, lehenik eta behin hitz zerrenda bat banatuko diegu, gerora, bereizketak egin ditzaten aurrizki, artizki edo atzizkia topatzen duten jakiteko.

Hitzak bereizi

Desegin; eragin; egile; eginkizun; mahasti, saiheski; birziklatu; asmakuntza; aizkolari; euskaltegi; maitasun; idazle.

Ariketa zuzendu ostean, hurrengo ariketa eginen dugu, ahalik eta hitz gehien sortu, eta etimoen erabilgarritasunaz hausnar dezaten. Ariketan proposatutako hitzak eratorri ostean, ikasleek taula bete beharko dute, nahi duten hitza aukeratuta. Adibidez: *nagusikeria; tontakeria; gehiegikeria...*). Ondoren, denon artean zuzenduko dugu.

30 Aplikazio-jarduera

Hitz elkartuz gain, badago beste modu bat lexiko berria sortzeko: eratorpena.

1. Lot itzazu aurreko jarduerako taulako hainbat hitz ondorengo atzizki, artizki eta aurrizkiekin. Zentzuzko zenbat hitz eratorri sortu dituzu?

Hitz zeluzko sortu

IZEN ABSTRAKTUAK						
nagusi	-gintza	-keria nagusikeria	-kizun	-kuntza	-men/-pen	-tasun nagusitasun -tza nagusitza

EGILE EDO AGENTEAK		EFEKTUAK		INSTRUMENTALAK		
hartu	-gile hartugile	-tzaile hartutzaile	-le	-era hartutera	-gailu- hartutagailu	-gai -keta

LEKUZOAK		JATORRIZKOAK		MATERIALAK		GABEZIAZKOAK		ADITZAK SORTZEKOAK	
lan	-di lantegi	-tegi	-tar	-gaitz	-garri	-gabe lantegibe	-tu/-du landu		

eman	-RA- eraman
------	----------------

egin	BIR-/BER- berregin	EZ-	DES- desegin
------	-----------------------	-----	-----------------

Konpetentziak: HKK, KPSII, EK, KKAK.

Ebaluazio irizpideak: 2.1; 4.1; 9.1; 9.2; 9.3.

Oinarrizko jakintzak: B2.1; B2.3; B2.5; B3.5; B4.1; B4.2; B4.3; B4.4; D1; D2; D3; D5; D6.

2.3.6. Seigarren saioa

Saio honetan unitate honetan ikasitakoa ebaluatuko dugu. Horretarako, ikasleek aurrizki edo atzizkia identifikatu, eta beste bina hitz eratorri jarri beharko dituzte dagokien tokian. Eskoletan landutakoak izanen dira, beraz, eta aurretik abisua emanda, ikasleek egun honetarako ikasitakoa praktikak jarri beharko dute. Hauxe izanen da ebaluaziorako ariketa:

- Armagintza:
- Ameskeria:
- Eginkizun:
- Oturuntza:
- Sormen:
- Maitasun:
- Egurgile:
- Antolatzaile:
- Idazle:
- Harrera:
- Hozkailu:
- Isurketa:
- Pagadi:

- Lantegi:
- Sinesgaitz:
- Sinesgarri:
- Langabe:
- Landu:
- Berregin:
- Desegin:

Osotara 20 aurrizki edo atzizkiren inguruan galdetuko zaie, moldagarriak izan daitezkeenak eskolan gertatutakoen arabera. Emandako hitz bakoitzetik beste bina hitz idatzi behar dituztenez, 0,25eko balioa izanen du hitz zuen bakoitzak. Ariketa honetan ez dut toponimorik aipatu ez dudalako ikasle errealeen daturik. Unitatea aplikatzean, ariketa honetan ikasleekin landutako toponimoak sartu beharko lirateke.

Amaieran, proiektuari ekinen diote.

Konpetentziak: HKK, ELK, KD, KPSII, HK, EK, KKAK.

Ebaluazio irizpideak: 3.1; 3.2; 4.1; 4.2; 5.1; 5.2; 6.1; 6.2; 6.3; 9.1; 9.2; 9.3.

Oinarrizko jakintzak: A6; A7; B1.1; B2.1; B2.2; B2.3; B2.4; B2.5; B3.4; B3.5; B3.6; B4.1; B4.2; B4.3; B4.4; B4.5; B4.6; B4.7; D1; D2; D3; D5; D6.

2.3.7. Zazpigarren saioa.

Saioa hau unitate amaierako proiektua fintzeko erabiliko dugu. Lehen saioko inprimakia erabilita, aurretiaz izanen dute ikasleek taldeen berri, beraz, leku izen edo abizena aukeraturik

izanen dute. Eskola honetarako, irakasleak informazioa bilatu beharko du, ikasleek zalantzarik izatekotan, argitu ahal izateko.

Konpetentziak: HKK, ELK, KD, KPSII, HK, EK, KKAK.

Ebaluazio irizpideak: 3.1; 3.2; 4.1; 4.2; 5.1; 5.2; 6.1; 6.2; 6.3; 9.1; 9.2; 9.3.

Oinarrizko jakintzak: A6; A7; B1.1; B2.1; B2.2; B2.3; B2.4; B2.5; B3.4; B3.5; B3.6; B4.1; B4.2; B4.3; B4.4; B4.5; B4.6; B4.7; D1; D2; D3; D5; D6.

2.3.8. Zortzigarren saioa

Saio honetan proiektuak ahozko aurkezpena egingen dute eta amaitutzat emanen dugu unitatea. Ahal delarik, baliabide teknologikoak erabiltzea eskatu zaie ikasleei, konpetentzia digitala ere lant dezaten.

Konpetentziak: HKK, ELK, KD, KPSII, HK, EK, KKAK.

Ebaluazio irizpideak: 3.1; 3.2; 4.1; 4.2; 5.1; 5.2; 6.1; 6.2; 6.3; 9.1; 9.2; 9.3.

Oinarrizko jakintzak: A6; A7; B1.1; B2.1; B2.2; B2.3; B2.4; B2.5; B3.4; B3.5; B3.6; B4.1; B4.2; B4.3; B4.4; B4.5; B4.6; B4.7; D1; D2; D3; D5; D6.

2.4. Ebaluazioa

	Bikain	Nahikoa	Gutxi
Portfolioa (%20)	Unitatean zehar egindako ariketa guztiak ditu.	Unitatean zehar egindako ariketen erdia du.	Ez du unitatean zehar egindako ariketen erdia ere.
Azterketa (%10)	Hitz guztiak edo ia guztiak ongi jarri ditu.	Hitzen erdia jarri du ongi.	Hitzen erdia baino gutxiago jarri du gaizki.
Jarrera eta euskararen erabilera	Jarrera parte-hartzailea izan du eta euskaraz	Jarrera parte-hartzailea izan du batzuetan, eta	Ez du jarrera parte-hartzailea izan eta

(%10)	aritu da.	gaztelaniaz aritu da batzuetan.	gehienetan gaztelaniaz aritu da.
Proiektua (%60)	Bai idatziz eta bai ahoz, ebaluazio irizpide guztiak zuzen bete ditu (egokitasuna, zuzentasuna, kohesioa, koherentzia eta aberastasuna)	Bai idatziz eta bai ahoz, zenbait akats egin ditu ebaluazio irizpideetan (egokitasuna, zuzentasuna, kohesioa, koherentzia eta aberastasuna)	Bai idatziz eta bai ahoz, akats ugari egin ditu ebaluazio irizpideetan (egokitasuna, zuzentasuna, kohesioa, koherentzia eta aberastasuna)

3. Ondorioak

Lehenik eta behin, aipatu beharra dut ez dudala unitate didaktiko osoa martxan jarri. Praktikaldian izan naizen bitartean, zaila izan zait martxan jartzea ikasleen profila dela eta. Hala ere, hitz eratorpena lantzeko dauden proposamen didaktikoak ikusi ditut, eta irakasleek hala aitortuta, ez dira batere erakargarriak ikasleendako.

Toponimiaren lanketaren bitartez, ez dira soilik hainbat ikasgai uztartzen (Historia, Geografia eta Euskara), ikasleek norabideratu dezaketen unitate bat sortzeko balio du. Horrela, hurbileko sentitzen duten edukien gainean lan eginez, konturatu gabe eta modu atsegin batean, hizkuntzaren alderdi morfologikoa lant daiteke.

Curriculumari so eginez, Unitate Didaktiko honen bidez hainbat konpetentzia lantzen direla ikus daiteke: Hizkuntza Komunikaziorako Konpetentzia: izenak berak dioen bezala, bai ahoz eta bai idatziz, euskaraz komunikatzea helburu duen unitatea da; Eleaniztasunerako Konpetentzia: proposatzen diren web orrialdeak eta bilaketa bibliografikoa erdaraz topatzea erabat arrunta izanen da. Gainera, toponimoen erdal aldaerak ere aztertzeko parada izanen da, ziurrenik; Konpetentzia Digitala: unitate osoan zehar baliabide teknologikoak erabiltzea proposatzen da, bilaketarako eta sorkuntzarako.

4. Erreferentzia bibliografikoak

Cierbide, R. (1980). Toponimia navarra: historia y lengua. *Fontes linguae vasconum: Studia et documenta*, 12(34), 87-106

Jimeno, J. M. (1986). Topónimos navarros con sufijo-ain. *Fontes linguae vasconum: Studia et documenta*, 18(48), 251-282.

Jimeno, J. M. (1991). Pamplona y sus nombres. *Fontes linguae vasconum: Studia et documenta*, 23(57), 55-76.

Jimeno, J. M. (1995). Las lenguas escritas y habladas en Pamplona. *Fontes linguae vasconum: Studia et documenta*, 27(68), 51-68.

Jimeno, J. M. (2004a). Estudios de toponimia navarra. Pamiela.

Jimeno, J. M. (2004b). Retazos de la historia de Pamplona. Pamiela.

Jordan, C. (2001). Del topónimo euskara de Pamplona. *Fontes linguae vasconum: Studia et documenta*, 33(88), 417-430.

LOMLOE (2020). Ley Orgánica 3/2020, de 29 de diciembre, por la que se Modifica la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación. *BOE*, 340, 122868-122953. Euskaraz: 3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena. <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2022/155/1>

Lopez-Mugartza, J. K. (2008). *Erronkari eta Ansoko toponimiaz*. Euskaltzaindia eta Nafarroako Gobernua.

Núñez, L. C., & Astrain, L. N. (2003). *El euskera arcaico: extensión y parentescos*. Txalaparta.

Salaberri, P. (1993). Iruñeko toponimiaz (I). *Fontes linguae vasconum: Studia et documenta*, 25(64), 477-506.

- Salaberri, P. (1994). Eslaba aldeko euskararen azterketa toponimiaren bidez. *Onomasticon vasconiae*, 11.
- Salaberri, P. (2000). Acerca del sufijo toponímico-ain. *Fontes Linguae Vasconum*, 83 (2000), 113-137.
- Seguido, Á. F. M., & Tena, J. C. M. (2021). La toponimia como recurso didáctico para la enseñanza de la Geografía. Una propuesta a partir de tres salidas de campo en la Huerta de València (España). *Vegueta: Anuario de la Facultad de Geografía e Historia*, 21(2), 107-136.
- Torres Cabrera, G. (2018). Toponimia y enseñanza del vocabulario. *Publicaciones didácticas*.
- Velaza, J. (2022/10/14) [Online] *Idazketa eskuan*. Aranzadi zientzia elkartea.
<https://www.aranzadi.eus/eu/idazketa-eskuan>

5. Eranskinak

5.1. 1. Eranskina. Dislexia.

Klaseko lanak eta jarduerak:

- Material bisuala erabili, ez soilik idatzia: eskemak, grafikoak, mapa mentalak...
- Ahozko azalpenak ematen bazaizkie, ulermen prozesua erraztuko da. Ahozko azalpenak ematen direnean arreta jartzen ari direla ziurtatu, hori baita haiek informazioa eskuratzeko izango duten memento aproposena.
- Tipografia: Arial, 14koa gutxienez, justifikatu gabe. Letra etzana ez erabili.
- Lerroen arteko tartea: 1,3; 1,5... 2raino
- Paragrafoen artean: lerro huts bat gutxienez.
- Lerroen luzera: 60-70 karaktere.
- Eduki nagusiak nabarmendu; ikasle hauei askotan kostatzen zaie ideia garrantzitsuak eta ez hain garrantzitsuak bereiztea. Eskemak edo laburpenak eskaintzea ere aproposa izan daiteke.
- Material osagarri anitza erabili: argazkiak, bideoak, grabazioak, Power Pointak... Euskarri bisualak lagunduko die azalpena jarraitzen eta arreta hobeto mantentzen.
- Testuetan garrantzitsuena kolorez azpimarratu.
- Testu luzeak egokitu. Galderak tarteka jarri, ez denak bukaeran.
- Testu ekoizpenerako txantiloia ala gidoia eman, testua antolatzen laguntzeko.
- Testu ekoizpenerako ereduak eman.
- Ahal denean, jarduera ahoz egiteko aukera eman.
- Ariketa bat egin behar dutenean eta eginbeharrekoak idatziz ematen zaizkienean, egin behar dutena ulertu dutela ziurtatu.
- Gelan dagoen zarata maila kontrolatu. Arreta mantentzea oztopatu dezakeen edozein estimulu kontrolatzen saiatu.
- Gela gauza gutxienekin apaindu, bere arreta nahi dugun estimuluetan jartzeko.

Ebaluaziorako gomendio orokorrak:

- Ebaluazioa modu desberdin eta osagarriak erabili.
- Ebaluazio irizpideak aurreratu.
- Ahal bada, azterketa ala azterketa zati bat ahoz egiteko aukera eman.

- Galderak ozenki irakurri.
- Hizkuntzetan, ahozko ekoizpenei idatziei baino garrantzi gehiago eman.
- Edukiei itxurari baina garrantzi gehiago eman.
- Azterketa idatzietan, enuntziatu bakoitzean galdera bakarra jarri.
- Galderarekin lotutako irudiak ala grafikoak jarri, ulermena errazteko.
- Informazioa modu garbian eskatu. Formatu desberdinak erabili: galdera luzeak, motzak, test estilokoak, hitzak-irudiak lotu, hutsuneak bete...
- Hizki mota garbia, handia. Arial tipografia erabili. Lerroen artean 1,5 espazioa utzi. Letra etzana ez erabili.
- Galderetan hitz gakoak azpimarratu ala nabarmendu.
- Beharrezkoa bada, denbora gehiago eman edo azterketen luzera egokitu.
- Ortografia akatsak ez zigortu. Ingelesean baliokide fonologikoa onartu. Zuzentzeko garaian, kolore gorria ez erabili.

5.2. 2. Eranskina. AFN-H.

Klaseko lanak eta jarduerak:

- Klaseko lanak, azalpenak, ariketak, jarduerak... euskarri eta formatu ugarian egingen dira, ikasleen arreta erakartzeko eta informazioa prozesatzeko hainbat bide erabiltzeko: testuak, grafikoak, mapa kontzeptualak, mapa mentalak, bideoak, manipulazioa eta esperimentazioa... Ez ahaztu ikasle hauetako asko pentsatzeko mugitu behar direla.

- Era askotako metodologiak erabili, ikaskuntza motibagarriak eta esanguratsuak, bizipenei lotutakoak. Talde lanak egin behar badira, irakasleak osatuko ditu, lortu behar den helburuaren arabera.

- AFN-H duten ikasleek testuinguru egituratua behar dute. Agendaren erabileran, lanen eta azterketen egutegietan... laguntza beharko dute. Gaur egun erabiltzen diren baliabide teknologikoen laguntzen ahal dute zeregin horretan (*calendar, drive, classroom...*). Epeak bukatzeaz daudenean gogoraraztea ere oso interesgarria izan daiteke. Egin beharreko lanak, azterketak eta lanak familiek ere ikusgai baldin badituzte, askoz hobeto.

- Kokapenari dagokionez, irakasleengandik gertu eta ate eta leihoetatik urrun, ahal izanez gero. Ikaslearekin interakzio jarraitua ahalbidetuko du horrek: laguntza eskaini, bere lana gainbegiratu, akatsak zuzendu, errefortzua eman, arreta galdu badu berriz ere erakarri... Mahaiaren gainean unean behar duen materiala besterik ez izatea oso garrantzitsua da.

- Klasea hasi baino lehen sarrera bat egin (zer egin behar den, zertaz hitz egin behar den...), ikaslearen arreta zentratzen laguntzeko.

- Azalpen garbiak eman, mezu motzak erabiliz eta ideia nagusiak arbelean idatziz (ala marraztuz, mapa mentalen bitartez). Ez da komeni azalpen tartek oso luzeak izatea. Behin azalpena bukatuta, esandakoaren laburpen bat egitea oso lagungarria izan daiteke.

- Azalpenaren bitartez, begiradarekin kontaktua maiz mantendu. Arreta galtzen duenean, berarekin aurretik adostutako keinuren bat erabili daiteke arreta berriz erakartzeko, bere izena behin eta berriz ozenki esan gabe.

- AFN-H duten ikasleekin malguak izatea komeni da, ahal den neurrian mugimendua ahalbidetuz. Beraientzako mugimendua behar bat dela ulertu behar dugu; bere tokian eserita eta geldirik egotea askorentzat esfortzu ikaragarria da. Mugitzeko behar hau traba bat izan daiteke klasean, dudarik gabe, baina gehienetan ez da eragozteko egiten duen zerbait. Jardueren arteko atseden txikiak hartzea izan daiteke aukera on bat.

- AFN-H duten ikasleek puntu ahulak dituzte, baina baita puntu sendoak ere, eta ematen duten baino gaitasun eta dohain gehiago izaten dituzte. Sormen handiko ikasleak izan daitezke, adibidez. Beraien "berezitasun" hori aurkitu eta ikusaraztea oso garrantzitsua da; gehienetan beraiek ere ez dute ezagutzen.

- Jarduera luzeak jarduera motzetan zatitu. Egin beharreko lana puska txikiagotan (kudeatzeko errazagoak) banatuta, uste baino lan gehiago egingo dute. Lanen kalitatea bilatu, kantitatea baino.

- Eguneroko lana balioetsi. Prozesua ongi doan jakiteko balioko dio horrek, bai berari, baita familiari ere, azterketetan ezustekoak hartu gabe. Familiekin kontaktu jarraitua izatea oso

gomendagarria da, baita ikaslearekin maiz hitz egitea, guregandik zer laguntza behar lukeen galdetuta.

Ebaluaziorako gomendio orokorrak:

- Ebaluatzeke egokitzapenak prozeduretan izango dira, ez edukietan.
- Ebaluaziorako hiru aspektu gutxienez izango dira kontutan: eguneroko lana, etxerako lanak eta lanak eta azterketak.
- Probak egingo direla behar den denborarekin abisatu eta tarteka gogorarazi. Azterketen eta lanak entregatzeko daten egutegia eskuragarri izatea komeni da.
- Ebaluazio mota desberdinak erabili (ahoz, idatziz, teklatua erabilia...).
- Azterketa bukatzeko denbora gehiago eskaini.
- Galdera motz eta sinpleak egin. Ahal bada, proba berean estilo berekoak erabili (adibidez, denak irekiak, denak itxiak, denak test modukoak...). Ez jarri galdera bat baino gehiago enuntziatu berean. Galdera bakoitza orri batean ematea oso lagungarria da zenbait ikaslerentzat.
- Galderetan hitz gakoak nabarmendu.
- Azterketa egiten hasi baino lehen, galderak ulertzen dituela egiaztatu. Irakasleak galderak ozenki irakurtzea lagungarria izan daiteke ikasle askorentzat, ez soilik AFN-H dutenentzat.
- Azterketa bitartean, denbora kontrolatzen lagundu. Beregana hurbildu zentratzen laguntzeko (“irakurri berriz”, “galdera bukatu”, “utzi galdera hori eta segi aurrera”...).
- Azterketa entregatu baino lehen, galdera guztiak erantzun dituela eta azterketa errepasatu duela ziurtatu.

